

Prensa Oharra

120 ekitalditik gora antolatu dira Donostian Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko

Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta, 120 ekitaldi baino gehiago antolatuko dira azaroaren 27tik abenduaren 3ra Donostian, Euskararen Hirian. Urtean zehar euskara sustatzeko lanean diharduten 11 auzotako Euskara Batzordeez gain, beste 5 auzotan ere Euskararen Eguna antolatzeko taldeak sortu dira.

Euskararen Eguneko ekintzen egitaraua hirian aurrera eramateko elkarlanean aritu dira auzoetako Euskara Batzordeekin batera Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkartea eta Udaleko Euskara Zerbitzua.

2024ko Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko egitarauak antolatu dituzte hiriko hamasei auzotan: Aieten, Altzan, Amaran, Amara Berrin, Antiguan, Añorgan, Egian, Grosen, Ibaetan, Igeldon, Intxaurrondon, Loiolan, Loiolako Erriberan, Martutenen, Parte Zaharrean eta Zubietan. Horietan, 120 ekitaldi baino gehiago izango dira azaroaren 27tik abenduaren 5era. Horren harira Jon Insausti Kultura, Euskara eta Turismoko zinegotziak zera azaldu du: *“Auzoetako batzordeek egin duten lana goraipatu beharra dago. Guztira, 53 eragile aritu dira lanean auzoetako egitarauak antolatzen eta hori kopuru garrantzitsua da oso. Elkarlanaren emaitza izan da”*.

Jarduera horiek guztiak ezagutzera emateko, auzo bakoitzeko egitarauarekin eskuorriak eta kartelak argitaratu ditu Udaleko Euskara Zerbitzuak, ohi duenez, eta auzoetan banatu ditu jada; kultur etxeetan, kiroldegietan, gaztelekuetan, haurtxokoetan, jubilatutuetan, ikastetxeetan, euskaltegietan eta auzo elkarteetan, besteak beste. Leku horietan ez ezik, donostiaeuskaraz.eus webean ere izango da eskuragarri auzoetan izango diren ekintzen gaineko informazioa auzoka zein egunez egun antolatuta.

Era guztietako ekintzak hiriko auzoetan

Ekintza sorta zabala eta anitza prestatu dute auzoek datozen egunetarako: batetik, kultur ekintzak (antzezlanak, film-proiekzioak, hitzaldiak, liburu-irakurketak, kantu-jirak, bertso-saioak, kontzertuak, eta abar); bestetik, helduen artean euskararen erabilera

Prensa Oharra

sustatzeko egitasmoak (mintzodromoak, mahai-jokoak, tailerrak, lehiaketak...), eta, azkenik, haurrentzako eta gazteentzako jarduerak edota familian egitekoak (ipuin-kontalariak, pailazoak, buruhandi eta erraldoiak, jolasak, txokolate-janak, Euskaraokea, disko-festak, puzgarriak eta abar).

120 ekintza horietatik, Jon Insaustik gutxi batzuk nabarmendu nahi izan ditu: “*Plazara Goaz-en 25. urteurrena* erakusketa, Intxaurrendoko euskara elkarteak azken 25. urteotan egindako lana biltzen duena; Intxaurrendon bertan Pirritx eta Porrotx pailazoak; *III. Euskaldun Peto Lehiaketa* Igeldon; bakarrizketa saioak Añorgan eta Parte Zaharrean, mintzodromoak Altzan, Amara Berrin eta San Telmon; ; *Etorri mugikorra euskaraz konfiguratzera informazio-mahaia* Grosen; eta kantu-jirak, kale-animazioa, era askotako bertso-saioak eta umeentzako ekitaldiak ia auzo guztietan”.

Abenduaren 3an, asteartea, mintzodromoak antolatuko dira San Telmo Museoan. Arratsaldean, Pantailak Euskaraz-en *Urak eginen du bide* dokumentala eta Barrexaerka taldearen *Nahastumbury antzezlan*a eskainiko dira saio berean, 19:00etan hasita.

Gozaldia Eguna azaroaren 30ean, Euskaraldia 2025ean egingo dela gogorazteko

Azaroaren 30ean *Gozaldia Eguna* antolatuko da Euskal Herriko hiri eta herri askotan Euskaraldiaren laugarren edizioa 2025eko maiatzaren 15etik 25era egingo dela ospatzeko. Donostiako auzo guztietan ekintza sorta handia eta anitza prestatu da herritarrek euskararekin gozatu dezaten.

Euskara Plazara jokoa eta lehiaketa

Abenduaren 3an, Donostiako Turismo Udal Erakundeak Euskara Plazara jokoa banatuko du bulegora gerturatzen diren bisitari euskaldunen artean. Jokoa sare sozialetan aurkeztu zuten eta abenduaren 2a arte egongo da eskuragarri (<https://pr.easypromosapp.com/p/986860>). Jokoa parte hartu eta emaila uzteagatik, Turismo Bulegoan diren *Euskal Imanak* eskuratuko dituzte jokalariek. Azkarrena irabazle; beraz, prestatu begi eta atzamar horiek eta jolastera!